

NON ZER

Mcluhan Parisen

Torrealday. . . 3 gn.

Elizaren Berri

Amunsa . . . 6 gn.

Arrasateko Ikastolatik

7 gn.

zeruko ARGIA

BANAKOLA: OKENDO, 22 DONOSTIA TFI 426666 PREZIOA 8 PEZETA

“ SAN JUAN, SAN JUAN HELDU DA ”

San Juan goizean argitzen den gauak, aurtan ere berekin izango du gau sakratuaren bizikizun dardaratia. Gau hontan —hala da esana—, iratzeak loretuko dira —ñoiz lorerik izaten ez duten iratzondoak—, eta goizaldean eguzkiak dantzan egingo du bere sorrera. Guzi hau, izadia bere erraietan poz-tuko balitz bezala.


Gau siñalagarri hontan —hala da ohitura—, lehen orduetan San Juan suak piztuko dira gure bidegurutzetan. Eta suak uxatuko ditu soroetako sorgiñak eta gaizkiak. Ohitura berriago baten arabera, elorri zuriarekin egindako gurutzeak sartuko dituzte arta soroetan, gurutzeen aldamenean kandelak eta maripoxa argiak piztuaz. Eta baserrietako erromesak, zuzi piztuak eskuetan, beren ibillaldia asiko dute iturri zaharrera, larruko txira eta haundizuak garbitzera.

Ate gaiñean, berriz, lizar ostrozko arkua jarriko dute, zugaitez be-deinkatuak kalte gaiztoetatik etxea zaindu dezan. Era berean, eguzki loreak ezarriko dituzte, etxearen onerako, eta teillapekoen babesgarri.


Gau haundia zen San Juan gaua. Ekainaren festakizuna, «eguzki gaiñaren» eguna, eguzkiak, urte aldi-ko ibillaldia zehar, gain-gaiña har-tzen duen eguna. Hau da, egunik luzeenaren ospakizuna. Sineste zaharretan —indo-europeen eragitez edo—, izadiko gauzek jainkoizunen mailla zuten. Eta antziñako sineste hauetatik eguzkiari eta urte giroei dagokienak dira indartsuen gorde-zaizkigunak. Herri zaharrak —sine-tez ez bada ere, bai ohiturez—, ekaina ospatzen du, aparteko go-gorakizun batez. Sua, ura eta zu-haitzak dira gertakizun honen ezau-garri aberats; eta, aldi berean, eguzkiaren dohaiak gureganatzeko bide.

Mendiko legea izkutatzen ari zai-gun garai hontan, eta izadiaren in-darrak eta urte giroak gure bizi-tzaren gurrpilean eragite txikiagoa dutenean, lan ona da gogora de-zagun gure arimaren antziñako bar-ne erakuntza. Munduari eta gizonari buruz dugun ikusmoldeak hau du bere oinarri: gure gaindik da-goien izate baten aitormena. Dela aztikeriak, dela irulekeriak, izadiari buruzko siniste zahar guziek hori-xe daramate beren ikusmoldearen azpi-azpian. Eta kristautasunak ez dio egin ikusmolde honi aurrera-pide eta zehazketa betea eman bai-zik. Teknikaren garai hontan, mun-duari eta gizonari buruz ikusmolde berriak sortzen ari diran garaian, ikusten ez denak hobetuko al du —nahiz geroko mundu hobearen esperantzak, nahiz izadiz gaindiko soluziobideak—, San Juan gaueko bizikizun dardaratiak susmo biziz ikus arazten digun giza lege berria.


Juan Mari Lekuona



Oraingoan Arriak hautsi du Aierbe



Arria eta Aierbe haizkoran



Aierbe eta Arria korrika



Mindegia anaiak eta Ituarte-Agite

ARRIA III - AIERBE

Lehen Otsailaren 24ean jokatu zuten elkarren aurka Tolosako zezenplazan. Aierbe geratu zen orduan nagusi. Hamakana enbor ebaki behar zituzten orduan. Huserria batez irabazi zion Aierbek Arria hirugarrenari.

Ekainaren 16, igandea, Arriaren eguna izan zen.

54 ontzako hamabina enbor ebaki behar zituzten lehenik eta gero zortzina kilometro lasterka egin.

Ez zuen jende gehiegirik bildu apustu honek.

Tolosakoan baino makalago eta galdiago jardun ziren Azpeitikoan. Izan ere egurrak gogorak ziren eta eguraldia, berriz, beroa.

Sei minutu onen alde kendu zion Arriak Aierberi enborrak ebatzen, enbor ta erdirena, alegia.

Hiru buelta eta erdi emanak zeuzkan Arriak zezenplazari Aierbe korrika hasi zenerako.

Hona bakoitzaren markak:

ARRIA III

Enborrak:

1. 2'18"
2. 4'53"
3. 7'15"
4. 10'49"
5. 13'38"
6. 17'21"
7. 20'51"
8. 23'39"
9. 26'39"
10. 30'11"
11. 34'06"
12. 37'30"

Kilometroak:

1. 42'18"
2. 46'45"
3. 51'11"
4. 55'42"
5. 60'15"
6. 64'45"
7. 69'27"
8. 73'57"

AIERBE

Enborrak:

1. 2'52"
2. 5'16"
3. 8'40"
4. 11'44"
5. 16'08"
6. 19'50"
7. 23'53"
8. 27'27"
9. 30'55"
10. 35'05"
11. 39'58"
12. 43'33"

Kilometroak:

1. 47'58"
2. 51'57"
3. 55'51"
4. 59'52"
5. 63'43"
6. 67'40"
7. 71'35"
8. 75'15"

ZABALETA-AGIRREZABALA

Tolosako zezenplazan ere ez zen jende gehiegi bildu igandean korrikariak ikustera.

Zortzina kilometro egin behar zituzten Agustin Zabaleta eta Esteban Agirrezabalak.

Zabaleta ibili zen beti aurretik. Ikus markak

ZABALETA

Kilometroak:

1. 3'00"
2. 6'17"
3. 9'43"
4. 13'18"
5. 16'54"
6. 20'35"
7. 24'15"
8. 27'39"

AGIRREZABALA

Kilometroak:

1. 2'59"
2. 6'19"
3. 9'51"
4. 13'26"
5. 17'04"
6. 20'43"
7. 24'24"
8. 27'55"

SANTESTEBAN

Haizkolariak izan ziren igandez Santestebango pelotalekuan.

Ezkurrako Mindegia anaiak alde batetik. Bestetik, Leitzeko Ituarte eta Azpeitiko Agite.

45 ontzako hamabina enbor zituzten ebakitzeko txanda librean. Mindegiatarrak atera ziren nagusi. 17 minutu eta 49 segundotan egin zituzten hango lanak.

Ituarte eta Agitek, berriz, 18 minutu eta 56 segundotan.

SAN JUANAK

Sartu gara udan. Eguzkia ez da aspertzen guri begira. Ez gaitu utzi nahi. Maite gaitu aldi honetan.

Eztaietan gaude eguzkiarekin. Sua, hizarra eta ura izango dira gure solas lagunak.

Egun haundi hañetara bildu da San Juan ere.

San Juan jaiak dira baxter guztietan.

Ospa ditzagun jator.

AITA LASARI OMENALDIA

Hil honen 30ean egingo zaio Aita Lasari omenaldia, Urbian.

Bi aldiz atzeratu da lehen omenaldi hau.

Oraingoan ez dela atzeratuko us-te dugu.

Zorionak, aita Lasa.

MUTIOZABAL

UDABERRIA

— 1 —

Zori oneko udaberria, etorri zera gugana, eguna luzau ta gauda moztu, poza ekarri duana; garai bateko aize traketsa ta biurria juana, orain portatzen bazera ondo egiña daukagu dana.

— 2 —

Loratu dira txerben da aran, melokotoi da kerezi, txoriak ere egunsentian kantuan goxo ta bizi; itxura ona daukazu eta txartutzen etzaitez asi, gaizto samarrak bagera ere oinbeste ez deu merezi.

— 3 —

Oetik jeiki goizian eta leiu irikitizian, lore-usa aize preskua musutara etortzian, goiko mendian txori-abestia txiritxioka aitzian, uste gabeko poz atsegiña sartutzen da biotzian.

— 4 —

Alde batera gure mendiak ez du antziñako antzik: goiko maldetan ez da ikusten pago eder da aritzik; pixkat bai, baiño nai aña ez da aitzen kukuen abotsik, euskal arbola ez dan tokian txori onek ez du itzik.

— 5 —

Mendi-maldako zelai urdiña, zu're zaure loratua; baserri-ataiko baratzatxua, zu ere dotoretua; arkumetxua salto ta brinko, oien ezin geratua, udaberria berriz pizteko zu zera aukeratua.

— 6 —

Artzai maitea, zuri begira, negua zeuan artian: elur lapratxa ta aize beltza oiñetara etortian, burua makur eta tristura zeure biotza betian; orain tente ta txistutan zaude txoritxuakin batian.

— 7 —

Ai, sakoneko errekatxua, lenago ziñan zakarra, orain xuabe ikusten zaitut, zeure arteko marmarra; oain berde dago zure gaiñian soillik zegon altz-adarra, erdi illian zeuden landarai eman diezu indarra.

— 8 —

Leno esan det, mendi-aldapan jarria dago lutua, piñu beltz orrek pamilirako euki biar du prutua; xelebria da oien gaiñian gutxi jartzia kukua, txori maitea, etorri urtero, izango dezu lekua.

— 9 —

Udaberria, geientxunian zuk daukazu garizuma, anai-arrebok, badakizute daukagun eginkizuna: Pazkuakua egin dezagun, kendu pekatu lizuna, sufritu eziñik iñorentzat ez, alkarrentzat maitasuna.

— 10 —

Segi deiogun bizimoduan kristau jatorren dotriñez, lagun urkoa apartau gabe, beti maitasun berdiñez; oitura ona gorde dezagun geure intentzio fiñez, gorroto txarra bera bota ta alkarri ondo egiñez.

Uranga'tar Imanol, «Azkonar»

ETXKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'zuzu

ATOMIZADO LAGARTO — Jabola erabilili beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — Jabola bear dezu orosi

JABON LAGARTO, garbiketarako Jaboi bakarra Etzeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

JABON LAGARTO

lehengo salneurriari eusten diogu

deskuentu haundiagoak egiten ditugu

AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA

MORAZA, 3 eta 14 an.
DONOSTIA

SAN MARZIAL, 12
IRUN

GUREKIN AURRERERATU EZAZU

ZURE ALDE ASKO DEZAKEGU



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

ARTE

ZUMETA, USURBILGO
PINTORE FOLK BAT

1. PINTORE FOLK BIKAIN BAT

Aspaldidanik, udaberri orotan, Usurbilgo paisajea sagar lorez loratzen da, arte eta poesiaz beteriko sagar lorez: Antton, Otaegi, Tapia, Arza anaiak, Zumeta eta horrelakoak dituzu udaberri horretako loreak. Sagarrak loreak ekartzen saiatuko dira... eta, aldian behin, lur usainez, sagardo usainez, ikulu usainez betetako loreren bat hirira aldatuko da eta dena bere lurrinez beteko dizu.

Hauze duzu, duela denbora guti, Zumetak Donostian egin duena. Baina kontu! Ez dugu hemen literatura merkerik eginen paisajea bere nahi eta guzti, edoeta folklorea ekarriko bere dantza, herri jai eta ohiturekin. Santiago Amón arte-kritikariak dioenez, hemen dena stratoa da, geologi azterketa bat, dardara... Zumetaren obra lurrean dago errotua; baina, Paul Klee-k zioenez, ezingo diogu artistari eskatu erroak adaburuan ditzan, zuhaitzari ere ez bait zaio eskatzen. Zumetaren fruitu eta hostoak bestelakoak dira, ezberdinak, bereziak; baina erroak lurrean, gure lurrean ditu. Horretxegatik nioen artikulu honen izenburuan, Usurbilgo pintore hau 'folk' dela, baina XX. mendeko folk bat, hitz batez, kategoria unibertsala luen folk bat.

2. ROLAND BARTHES-EN PASTELA
BEZALA

Bada zenbait urte, 'Artes Gráficas Valverde'-n lan egiten zuenarik, Zumeta kolorearen erraldoitzat kontsideratzen zutela. Neri neuri, entrepesa horretan lanean hasi nintzenean, egiazko grafik diseinu bezala erakusten zizkidaten honen obrak. 1961. urtean uste dut izan nuela haren lehen olio pinturak ikusten aukera, 'Galeria Barandiaran' zelako hartan. Geologi strato batzuk ziren, kolore plano eta indartsuez, oihairene gainean eginak, kartografik reliev baten atzera; ez, ordea, etzanik; tente jarria baizik, iazarle, ikusleari hurbilduz bezala, erraiak ageria zituelarik. Euskal Herriko lurak eta koloreak, izateko eta bizi-tzeko bateratzen diren gizon batzuen berotasun eta pultsoa.

Mendi bati egin dakioken ebakia bezala, pastel baten barrua ikustea bezala duzu Zumetaren obra. Saiatu ere, Zumeta haseratik saiatu bait zaizu pastelari kapak kentzen eta, Roland Barthes-ek zioenez, barne muina gorriak erakusten. Horixe da: koloreak eta formak, sortu eta dabilzanak, elkarrekin eho eta indarrez kontraposatzen direnak, berezko eta herri bizkortasuna emanaz. Sagor usaina, paisaje berde ilunaren eta Usurbilgo sagardotegiaren usaina du haren obrak. Koloreak garbiak, gogorrak eta basatiak agertu ditu beti. Halakoxeak eraman zituen 1967an izan zen euskal pinturaren lehiaketa hartara; edoeta geroztik Bilbaon, Iruñean, Donostian eta Barcelonan ikusi ahal izan ditugunak. Prozesu geldia darama, baina elementu guztiak lotzen eta ehotzen ari da, biziz eta kolorez beteriko ehuna lortu arte. 1961eko eskemaz geroztik, 1971an elementuak airean solte zituzten komposizio haletatik pasaturik, orain (artista bera

eta Fernando Altube, inaugurazioa baino lehen esegitzen ari zirelarik) ikusi berri ditudan koadro ongi-txutu eta lotuetara iristeko anitz ordutz lan egin eta sofitu, paisajea begiztatu eta landu behar izan du bere obra, oihairene gainean. Azken batean, abentura bat baita guzti hau.

3. ABENTURAREN ARRISKUA

Zumetak berak esaten zidanez, ez du bozeterik egiten bere obrak hasteko. Oinal xuriaren aurrean eser (hala nola Miro, Amable Arias, Txillida) eta abenturaren arriskuari ekiten dio, koloreak ipiniz eta isuriz. Koloreen joku eta dantza hasten du, toki eta denbora batean. Horregatik uste izan dut beti eta orain ere uste dut Zumeta poussinista baino arerubenistago dela. Eta horretxegatik uste dut, Zumeta eskutore baino pintoreago dela, nahiz eta haren zenbait obra, lau dimensiotakoa izan. Eritzi ere, gorgesgarri deritzat, denak poussinistak (marra eta dibujo zale) izateko joera dagoen herri eta garai batean, Zumetak hartu duen bide eta arriskuari. Beti uste izan dut, pintoreak koloreez gehiago jakin behar lukeela (Aristotelearen harian) —eta XX. mende honetan inoiz baino gehiago—, marra eta dibujoak baino. Eta ene ustez, honek euskal artistik mintzaira historikoa aberastu egingo du, horretxan faltan bait dago.

Bertsolariak hitzarekin denboran duen arauera du Zumetak kolorearekin toki edo espazio batean, birsortuz, gehituz, bertso-puntuak ongi rimatuz, obra elkarrizketa batean bukatuz jokatzen. Zumetak, bizi den girotik ateratzen du bere mintzaira: nirekin elkarrizketan erabili ohi duena eta bere artistik obrarena. Herri mailatik abiatzen da, lehenik senaz eta gero bide eta bidetxigor izkutuetatik landuz joateko. Haren obran, "izana" eta "egina" bat datoz. Gauza bera direla esan liteke. Honelaxe sortzen ditu, pikanaka, bere kolorezko akelarre eta festak, lur stratoak eta zero gorriak, berde, urdin eta horiak, oihaletik ihes doazelarik horman lekua eskatuko balute bezala.

Horregatik, haren abentura artistikoari, emozioz eta ederrez beteriko arriskua dela deritzat.


Haren pintura haseran, hastapenetan dagoelako irudipena dut eta haren egunoroko lan isilak ustekabe-pozgarriak ekarriko dizkigula, uste dut. Usurbilgo pelota-leku atzean, Udaletxeak berberak eskatutik, egin duen 144'5 m.²-ko zeramikazko mural hori bezalakoak. Zorionak Usurbilgo Udaletxeari halako asmoa izan duelako eta horretan bere jakituria eta kultura agertu duelako.

Bere inguruan duen herriarekin eta naturarekin batean hasi zuen Zumetak bere sortze-lana. Bide horri darraio, formak emanaz, gutariko bakoitzak, tokatu zaion errealtateari forma eman dion bezala. Haren obra folk abentura bat da. Gurea bezalako, esango nuke. Horregatik, ikasi beharrekoa dela uste dut, Zumetak eman digun lekzioa.

EDORTA KORTADI

KRITIKA

Artista eta aretoa	● Jose Luis Zumeta ● Sala El Pez
Teknika	● Olioak ● Zurean eginiko erdi-relieve (anitz)
Esalea	● Kolore joku eta isurketa toki eta denbora batean ● Kolore bizi basatiak ● Sozial ekintza izan nahi duten formak ● Era askotako formak, espazial informalismo nolabaiteko baten barnean
Esana	● Berezkoak dituen forma batzuen hazte organikoa ● Simetria, forma eta kolore legeei jarraitzen zaien jokua espazioan
Syntaxia	● Informalismoa ● Abstrakzioa
Emana	● Kolore eta formekiko gustoa ● Euskal Herriaren historia eta geografiari buruzko strato geologikoak (in sensu lato) ● Bi munduren elkartzea: jokuarena eta errealtatearena ● Toki geographikoak, ikustekoak eta buruzkoak
Balioa	● Ongi lortutako lanak (ez denak) ● Teknika, bateko beste, ona ● Pintura apaingarria, hormarako joerarekin ● Barne batasun handiagoko espero dugu hurrengo obretan
Salneurria	● 16.000 eta 80.000 pta. bitartean ● Merke, duten kalitatearentzako ● Bilduma zaleei eta museoei gomendatzen dizkiegu



Zumetaren pintura bat

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta ALBRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEIZ (Nafarroa)

CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5

TELEFONO 224440



Onen aientziak erri auetan dituzu:


Tudeal, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Berriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Eneritz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Berriain.



Donosti-Currerki-Kutxa

EUSKAL IRRATI
SAIOAK

Banen baneko azikal
Ongarri ta abonoak
Bela Zuloak
Erosi edo herritzeko diru
aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan
etorriak

Baserriaren alde

ARRASATE

Ez du lanak bakarrik asetzen

Asko hazi da Arrasate azken urteotan. Perritxikoenak bezala sortu dira nonahi lan-tegi berriak. Etxez eta kalez josi dira bazter guztiak.

Baina Arrasate ez du lanak bakarrik asetzen. Ogiz bakarrik ez dela gizona bizi ohar-tzen da. Haize garbia ere beharrezkoa du. Behar ditu atsedentzeko eta gozatzeko lekuak ere. Euskaldun izan nahi du industria giroan.

7garren orrian Arrasateko ikastolako lanak irakurriko dituzu. Hemen, berriz, Arrasateko historia apur bat: hirigintzari buruzko zenbait gogoeta eta alfabetatzeaz iritzi bat ikusiko dituzu. LETOBERE, M. L. eta TXIRON dituzu lan hauen egileak.

SANTA BARBARAKO PARKEA

Mondragoek Sartaldetik badu mendiska bat, herri osoa begiz menderatzen duena, bai bertan Parke Ikusgarria ere. Mendiska horren lehen izena «ARRASATE» zen, eta 980garren urtean Nafarroako Santxo Abarkak gaztelua eraiki zuen bertan, eta bai herri osoa harresiz edo murallez inguratu ere. Gaur egun ere harresien edo muralen aztarrenak ikus ditzakegu baina gaztelua-renik ez. Lapur eta gizon gaizkileen gordeleku bihurtu omen zen, eta herriaren eskabidez 1457garren urtean lur joerazi omen zioten. Hala agertzen da Mondragoeko Udaletxearen papertegiko pergamu zahar ba-tean.

Mendiska hori, gaur egun, Santa Barbara izenez ezagutzen dugu gu-zio, eta izen aldatze hori 1665garren urtetik datorkio. Aldi hartan «Barbara de Abarrategi y Oro» izena zuen anderea bizi zan noski Mondragoen, eta mendiska horren goiko-obaluko ertze batean, Zarugalde kalera begira alegia, elizatzko edo ermita bat eraikitzea burura zitzaion, xahuketak bere gain harturik. Eliza-tzko hori Santa Barbarari eskeini zion, Santa Ines eta Santa Gertrudisen irudiak alde bietan zituelarik

eta Jaunaren Igokundearena erdian. Elizkizunetarako behar ziren tresnak ere bere gain izan ziren.

1945garren urtera arte, Jaunaren Igokunde egunean, ohituraz herriko enparantzan ospatzen den erromeria, mendiska horren goikoobaluan ospatzen zen, eta bai behin baino gehiagotan galerazi edo suspenditu ere, tormentak ziralata. Jaunaren Igokunde eguna, zalea zen eguraldiaren fenomeno hoiek sortzen.

Elizattoa eraiki zenez gero, Arrasate auzokoek beren jai berezitzat hartu zuten Igokunde eguna, baina jatorriz Gazteluondo kalekoa da. Kale hontakoek, Igokunde egunean, afaltzen oilarra jateko ohitura zuten. Orainxe ere badira ohitura hori jarraitzen zaizkionak.

1769 garrenko urtean, Tolosako Biltzarretan Gipuzkoan beste asko bezala, elizatz hau lurra botatzea erabaki zen. Mondragoeko herriak aurka egin zuen, eta azkenik 1.771 garrenean bota ez baina itxi egin zuten.


Hogeita hamar urte geroxeago, berriz zabaldu zen eta eraikitzaileak eman zituen eliz-tresna berberekin meza eman ere; baina 1794 garre-

nean «Convención Francesako» gu-dariak jabetu ziren, geroago Napo-leonenak eta orduantxe desegin zen guztiz. Harrezkero izan zen eliza-ttoa berriz eraikitzeko asmorik, bai-na dena alferrik izan zen.

Mendiska honen edergailu beza-la, aipa dezakegu herriko-seme me-diku batek eraiki zuen harrizko jar-lekua (mediku-bankua). Gaur egun ere ikus daiteke zokun-unekeo jar-leku hori. Goiko obalura garamatzen bide ertzean dago, elizattoa altxa-tuta zegoen lekuaren azpian.

40 urtetik gorakook gogoan dugu goiko obaluren erdi-erdian zutitzen zen zedrotzarra; bai 1941eko Otsai-laren gauean, inguru askotako baz-terrak beldurrez ikaratu zituen haize-beltza edo huracana ere. Gau har-tan lurjo zuen zedrotzar harek, eta harekin batera beste milaka zuhaitz askok. Zedro hura, Adan de Yaza jaunak, 1854eko urtean, Lekeitiotik ekarri eta bertan aldatu zuen.

Badira urte batzuk, gure Udale-txeak berriz birlandatu zuela men-diska hori; orain maiteki zaintzen du. Zalantzarik gabe, urte gutxi ba-rru, Parke ikusgarria izango dugu Mondragoen.



Arrasateko kalea

AZKEN URTEOTAKO HIRIGINTZA

Askok dio Mondragoe herri za-karra dela, eta egia esateko azken urteotako hazkunde anarkikoa ikusi-rikan iritzi honek badu bere funtsa.

Minbizia lege, han hemenka ego-kitasunik gabe eraiki diren etxadiak eta hauzoneak, San Andres, Erguin, Makatzena, Santa Teresa... norae-zean urratu diren bide, karrika eta kantoiak, herri zaharraren oreka ede-rra leher arazi dute.

Minotauroren laberinto tengarria-ren ehite bildua eta trinkoa hartuko balute, hain funts gabe, hain total kozkortu diren hauzo berriok, gai-tzerdi. Baina alderantziz laberintuok arlosteak eta leloak dira: leku-unea destolestaturik gizonak ez du hemen bere neurria ematen ahal, bere goi-

tik behearako estatura arras galdua sumatzen du hemen. Hirigintza zaha-rrak kultur lekuak eraikitzen baze-kien. Aitzitik berriak maizegi ez du jakin izan.

Inoiz entzuna dut, egungo urbanis-tek herri baten plangintza hoberena lortzeko erabiltzen dituzten parame-tro zientifiko berdin edo berdint-suak, Arrasate zaharraren antolake-tan ere gertatzen direla.

Zientziaren faltan jatorrizko sen berezi bat zuten nonbait. Ikusi bes-terik ez dugu eliza inguruko kaleen goxoa, Udaletxe aurreko plaza na-gusiak jasotzen duen leku-une indar-tsu eta egokia, etxeen jauntasuna eta gorazia. Igo zaitez uda haserako ilunabar epel batez Santa Barbara

mendixkara eta begira ikastola pa-retik aldats beheara nasaiki abiatzen den Erdiko Kalearen prespektiba fin eta xehetazunez aberatsa... Beste eredu asko aipa genezake, baina zertarako!

Hauzo berrietan bizi eta egunero herri zaharrena bere giro bizian mur-giltzera itzuli bat egitera doanak besterik gabe egunero, hirigintza berriaren kritika errukigabea egitera beharturik duzu.

Herri ingurua ere nolabait hirigin-tza da. Eta arestian aipatu guztia gutxi balitz, herriaren inguru hurbila pinudien kolore ilunez estalirik da-kusagu, gure begien deskantsurako tarterik gabe. Gure eguneko bizitza teatroaren ondoko teloa mantxa ilun haundi bat da.

Zorionez, parte zaharra herriaren «reserva» dugun lege, urrunagoko mendi tantaen harkaitz gris argiek, lehengo hartan diraute.

Ilunabarrero lantegietako zokoak utzi ondoren, etxerako bidea har-tzen dugunean, Muruk, Tellamendik, Anboto eta Udalaitez, laurok kataia bat eginik besarkatzen duten inguru zabala, amets-ibai bilakatzen zaigu. Oi zeru bazter eta harkaitz orien ko-lore eztiak!

Laister, Lankide Aurrezki Kutxak bere bulegoetarako mendi hegalean eraiki duen etxenagusi aurrean, Oteitzak altxatuko duen irudia gai-luroiei aurkeztuko zaie, buruzut eta harro...

Gure Herriaren kontzientzia zorro-tza izango ahal da!

ALFABETATZEN

Badirudi, azken garai hauetan, kul-tura higadura indartsu bat sortu dela gure artean. Hain zuzen, «euskal» kultura higadura bat; lotsagarri ba-da ere, «euskal» kalifikatiboa ezarri beharrean urkitzen gara oraino, gero eta gutxiago izan arren. Baina mu-gida honek, historian zehar izan ez duen kutsu eta ezagugarri bat du, ene iritzi. Alegia, ez diola interes politiko konkretu batzuei, hau da, talde bateko edo bestekoei zerbi-tzen.

Izan ere, Euskal Herrian, kultura, edo behar bada hizkuntza soilik, tresna politiko gisa erabili ohi dugu nola euskaldunok hala euskaldun ez direnek ere. Beharrezko edo egoki izan denetan erabiliaz, eta bestetan, baztertuaz. Hala gara aurkitzen kul-turarenetan ere.

Ez da nik esana, baina neurea egiten dut, herri ttipi zapalduetan, sendotze politiko bat baino lehena-go, sendotze kultural bat sortzen dela. Ez da hemen horrelakorik ger-tatu.

Baina ez beza uler inork, esan ez dudarik. Noski, gai hontan xeheta-sunik eman daiteke bai mugatzerik ere.


Denbora galtzea litzateke, kultu-raren sendotze hutsak ogia ez ezik,

soluzio guziak erakarriko lituzkeela defenditzea, baina bai bideak urra-tzen hasteko, alde aurretik nondik, nora eta zergatik jakitea komeniga-rrri bait da, oinarri sendo bat eska-niko ligukeela; are, gure kultura motak ezerk baino gehiago bestez berezten gaituenez gero, horren bi-dez jasoko dugu etxea.

Kultura hori ezagutzen ez badugu, nola defendituko dugu?

Erabat desheredatuak garelakotan nago; kultura arrotzez jantziak eta aberastuak. Gure jantziak eta onda-sunak bila eta lortzea da gure egi-tekoa. Orduan defendituko eta gehi-tuko ditugu.

Eta hementxe, lan hontantxe da-goela uste dut, alfabetatzearen ze-regina. Hain zuzen, kulturaren oina-riak zabaltu eta sendotu. Ez ditut honekin aintzindari direnak baztertu nahi. Baina aintzindariok ez dira be-giratzeko, jarraitzeko baizik. Gehi-xeago mugatuaz, ez litzaiguke gauza zaila, sail hontan zehazki non garen ezagutzea, zenbateraino aurrera egin dugun jakitea, euskaldunago garen ala ez neurtzea. Ikerketa hori egin ahal duenik bada eta egin nahi due-nik ere bai. Begiak irikiko litziguke guzioi eta kolpeak nora jaurti ja-kingo genuke; orain, gutxi gora be-hera baino ez dakiguna.



Santa Barbara elizatzoa